

Ondasunen esportazioak % 2,4 igo ziren 2025eko otsailean Euskal AEn

Esportazioek % 1 egin dute behera 2025eko lehen bi hilabeteetako metatuan, baina 437 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa mantendu da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** urte arteko % 2,4ko igoera izan zuten 2025eko otsailean. Zenbatekoa 2.686 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.624 milioien aldean. *Energia-produktuen* esportazioak % 39,9 jaitsi ziren eta *ez-energetikoenak* % 5,8.

Arabako esportazioak % 13,1 igo ziren eta Gipuzkoakoak % 1,4; Bizkaikoak, aldiz, % 5,3 jaitsi ziren.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Otsaila 2025

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Otsaila			Otsaila		
	2024	2025	Gehikuntza (%)	2024	2025	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.624.226	2.686.024	2,4	2.116.959	2.329.431	10,0
ENERGIAZKO GAIAK	197.213	118.611	-39,9	468.898	583.315	24,4
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.427.013	2.567.413	5,8	1.648.061	1.746.116	5,9
URTEKO METATUA	5.000.135	4.949.995	-1,0	4.376.740	4.512.713	3,1
ENERGIAZKO GAIAK	317.376	148.431	-53,2	1.198.462	1.103.380	-7,9
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	4.682.758	4.801.564	2,5	3.178.278	3.409.333	7,3
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	786.590	889.341	13,1	528.477	551.111	4,3
URTEKO METATUA	1.553.495	1.644.947	5,9	910.731	1.061.951	16,6
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	1.001.951	949.122	-5,3	1.148.737	1.309.134	14,0
URTEKO METATUA	1.901.746	1.730.729	-9,0	2.620.108	2.520.133	-3,8
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	835.685	847.560	1,4	439.746	469.186	6,7
URTEKO METATUA	1.544.893	1.574.320	1,9	845.902	930.629	10,0

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2025eko Apirilaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioak** % 10,0eko igoerarekin 2.329 milioi eurora iritsi ziren. Inportazio *energetikoak* % 24,4 hazi ziren eta *ez-energetikoak* % 5,9. Merkataritza-saldoa positiboa izan da (356,6 milioi) eta estaldura-tasa hilabete horretan % 115,3koa izan da.

Arabako inportazioak % 4,3 hazi dira, Bizkaikoak % 14,0 eta Gipuzkoakoak % 6,7.

Lau esportazio-partida nagusiak, 745,8 milioi euro merkaturatuta, automobilaren sektorearekin lotuta daude, eta guztizkoaren % 27,8 biltzen dute; guztira, % 14,5eko igoera izan dute 2024ko otsailarekin alderatuta

Xehetasunak aztertuz, hilabete honetan 958 esportazio-partiden rankingaren buruan honako hauek daude: "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak", 339,1 milioi merkaturatuta eta aurreko urteko hilabete beraren aldean % 67,1eko igoerarekin; "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (178,4 milioi esportatuta eta % 14,9ko jaitsierarekin); "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak", (138,1 milioi eta % 3,1eko atzerakada); "Kautxuzko pneumatiko berriak" (90,3 milioi eta % 14,2ko jaitsiera) eta "Petrolioaren olio finduak" (74,5 milioi, aurreko urtean merkaturatutakoak baino 63 gutxiago, % -45,8). Bost partida horiek otsailean merkaturatutako guztizkoaren % 30,5 hartzen dute, eta guztira 820,4 milioi euroko balioa dute. Aipatzekoa da, halaber, ondoko partida hauen esportazioen hazkunde handia: "Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiarien kotxeak, bagajeak, posta, etab." (% 143,6) eta "Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne" (% 50,5).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.624.226	2.686.024	100,0	2,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	202.883	339.087	12,6	67,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	209.564	178.362	6,6	-14,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	133.874	138.073	5,1	3,1
Kautxuzko pneumatiko berriak	105.285	90.315	3,4	-14,2
Petrolioaren olio finduak	137.561	74.524	2,8	-45,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	52.743	61.624	2,3	16,8
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantiak	48.952	52.409	2,0	7,1
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	40.666	50.428	1,9	24,0
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	19.329	47.075	1,8	143,6
Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	29.215	43.976	1,6	50,5
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	49.159	43.681	1,6	-11,1
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketatara euskarriak	20.902	32.705	1,2	56,5
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	20.270	31.474	1,2	55,3
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriak	36.486	30.935	1,2	-15,2
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	19.568	29.599	1,1	51,3
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	29.349	27.099	1,0	-7,7
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	14.786	26.199	1,0	77,2
Igogailuak, eskalera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	27.076	25.459	0,9	-6,0
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	22.929	23.877	0,9	4,1
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbriak	21.824	22.654	0,8	3,8
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	54.159	22.217	0,8	-59,0
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak	14.190	19.767	0,7	39,3
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	21.496	19.765	0,7	-8,1
Soja-olioa	0	19.609	0,7	-
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	17.449	18.130	0,7	3,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Apirilaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Araban, muga-zergen partida nagusia "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" izan zen, eta esportatutako guztiaren % 36,2 hartu zuen. Gainera, esportatutako balioak 122,7 milioiko gorakada izan zuen aurreko urteko hilabete beraren aldean, hau da, % 61,5 gehiago. "Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak" partida ere nabarmen hazi da (% 218,8); aldiz, "Ibilgailuen zati eta osagarrien" salmentak (% -28,6) atzera egin dute.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	786.590	889.341	100,0	13,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	199.576	322.249	36,2	61,5
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	132.937	137.722	15,5	3,6
Kautxuzko pneumatiko berriak	71.329	61.677	6,9	-13,5
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurararik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	41.025	36.087	4,1	-12,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	50.049	35.728	4,0	-28,6
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	13.966	18.428	2,1	31,9
Ardoa, mahats freskoarena	17.514	15.397	1,7	-12,1
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	7.443	13.399	1,5	80,0
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	14.775	12.553	1,4	-15,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	2.537	8.089	0,9	218,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Apirilaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian, nabarmentzekoa da "*Soja-olioaren*" sarrera rankingean 19,6 milioi esportatuta eta baita ondoko partiden hazkundera ere: "*Turborreaktoreak, turbopropulstsatzailak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne*" (% 47,0) eta "*Burdinurtu, burdina edo altzairuzko txapa, barra, profil, hodi eta antzekoez egindako eraikuntzak*" (% 97,9). Aitzitik, negatiboak izan dira "*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*" (% -59,0), "*Petrolioaren olio finduak*" (% -46,5) eta "*Ibilgailuen zati eta osagarriak*" (% -16,3) partiden esportazioak.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.001.951	949.122	100,0	-5,3
Petrolioaren olio finduak	135.941	72.680	7,7	-46,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	74.089	62.029	6,5	-16,3
Turborreaktoreak, turbopropulstsatzailak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	29.024	42.655	4,5	47,0
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	47.322	42.317	4,5	-10,6
Kautxuzko pneumatiko berriak	33.243	28.246	3,0	-15,0
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	54.159	22.217	2,3	-59,0
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	18.591	21.797	2,3	17,2
Xafien bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	11.007	21.783	2,3	97,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	17.243	20.021	2,1	16,1
Soja-olioa	0	19.609	2,1	-

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Apirilaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan igoera nabarmenak izan dira ondoko partidetan: "*Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-kotxeak, bagajeak, posta, etab.*" (% 147,4), "*Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak*" (% 49,0) eta "*Hoditeriarako txorrota-gaiak, balbulak eta antzeko organoak*" (% 46,8). Hala ere, % 40,9 jaitsi da "*Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak, gidaria barne*" partida.

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Otsaila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	835.685	847.560	100,0	1,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	85.426	80.605	9,5	-5,6
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	49.845	59.027	7,0	18,4
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	19.002	47.019	5,5	147,4
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	26.207	38.479	4,5	46,8
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	23.216	22.376	2,6	-3,6
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	21.963	19.034	2,2	-13,3
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	11.833	17.634	2,1	49,0
Haria, isolatutako eroale elektriko kableak eta zuntz optikoko kableak	15.181	15.975	1,9	5,2
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, itzeko, etiketatze makinak	15.147	15.962	1,9	5,4
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	24.618	14.554	1,7	-40,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Apirilaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioak aztertuz gero, aipagarriena, "*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*" (guztizkoaren % 18,7), % 20,9 hazi da 435 milioi inportatuta. Hurrengo partidak, "*Petrolio-olio finduak*", % 14,6 egin du behera, aurreko urteko hilabete berean baino 15,7 milioi gutxiagorekin. Hala ere, nabarmen hazi dira "*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*", 55,9 milioi inportatuta (% 146,5 gehiago), "*Aluminio gordinak*" (% 350,3ko igoera eta 448,2 milioi inportatuta) eta "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (% 796,1), Arabatik ia 32,8 milioi erosita.

Europar Batasunak esportazioen % 60,3 hartu zuen

Hilabete honetan, esportazio-rankingeko lehenengo postuetan honako hauek daude:

- **Alemania:** herrialde horretara 414,1 milioi euroko balioa duten ondasunak esportatu dira, eta estaldura-tasa % 121,0koa izan da.
- **Frantzia:** 387,1 milioi euroko balioa duten Euskal AEko produktuak jasotzen ditu, % 213,4ko estaldura-tasarekin.
- **Erresuma Batua:** 173,4 milioi euroko balioarekin esportatu da, % 348,2ko estaldura-tasarekin.
- **Estatu Batuak:** gure esportazioetatik 158,1 milioi bideratu dira herrialde horretara, eta estaldura-tasa eskasa lortu da, % 88,7koa.
- **Italia:** herrialde horretara salmentak 147 milioi iritsi dira, eta estaldura-tasa % 138,2koa izan da.

Herrialde horiek esportazio guztien % 47,6 hartzen dute, eta horietako hiru EB-27koak dira, hau da, EB-27ak esportazio horien % 60,3 hartzen du.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 437 milioi euroko saldo positiboa izan du 2025eko lehen bi hilabeteetako metatuan

Lehenengo bi hilabeteetan, Euskal AEko esportazioak % 1 gutxitu dira aurreko urteko aldi beraren aldean; hau da, 50 milioi euro gutxiago. Esportazioen zenbatekoa 4.950 milioikoa izan da aldi horretan.

Bizkaiko esportazioak dira Euskal AEko altuenak, 1.731 milioi guztira; Arabakoak 1.645 milioi eta Gipuzkoakoak 1.574 milioi.

Produktu mota kontuan hartuta, "Produktu ez-energetikoak" dira ugarienak, 4.801,6 milioi euroekin.

Xehetasunak aztertuz, honako hauen esportazioek egin dute gora (% 34,7): "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (587,9 milioi esportatuta), "Bidaieri-autoak, bagajeak, posta eta abar trenbideetarako eta antzekoetarako" (62,6 milioi esportatuta), "Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne" (77,3 milioi) eta "Soja-olioa" (44,1 milioi esportatuta). Atzerapen handienak ondoko partida hauetan egon dira: "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (aurreko urtean baino 50,6 milioi gutxiago), "Kautxuzko pneumatiko berriak" (% -23,3), "Petrolio-olio finduak" (154,8 milioi eta % 63,6 gutxiago) eta "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (31,3 milioi eta % 11,3 gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Otsaila 2025

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	4.949.995
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	587.875
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	356.386
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	246.296
4	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	178.281
5	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	98.396
6	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	95.160
7	8481	Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	91.780
8	2710	Petrolioaren olio finduak	88.724
9	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	82.088
10	8411	Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	77.312
11	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	63.676
12	8605	Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	62.640
13	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	61.344
14	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	51.833
15	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketatara euskarriak	51.104
16	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	46.061
17	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	45.865
18	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	45.778
19	1507	Soja-olioa	44.108
20	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	42.859
21	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	40.797
22	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicioen-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	39.700
23	8301	Metal arruntzeko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	36.367
24	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzenko barra hutsak	35.852
25	8501	Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	35.476

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Apirilaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2025eko lehen bi hilabete horietako rankingean, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 15,5 hartuta (767,5 milioi). Frantziaren atzetik, Alemania (% 15,0 eta 741,9 milioi) eta Erresuma Batua (% 6,6 eta 328,3 milioi) daude. Horrela, EAEko esportazioen % 37,1 hiru herrialde horien artean banatzen da.


Metatutako inportazioak 4.513 milioi eurokoak izan ziren Euskal AE osoan. Urte arteko alderaketa eginda, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 136 milioi handiagoa dela ikusten da. Igoera horren arrazoia, neurri batean, Arabako lurraldean metatutako 1.062 milioi euroko inportazioak dira, aldi horretarako % 16,6ko hazkundera izanda; hau da, 2024ko aldi berean baino 151,2 milioi gehiago. Gipuzkoako inportazioak ere 85 milioi gehiago hazi dira, (% 10,0), guztira 930,6 milioi. Bizkaian % 3,8 jaitsi dira (100 milioi gutxiago), guztira 2.520 milioi. "Produktu energetikoen" inportazioak % 7,9 egin du behera, baina "Produktu ez-energetikoen" inportazioak % 7,3 egin du gora.

Aldi horretan inportatutako produktu-partidak aztertuta, ikusten da rankingeko lehenengo postuan "Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak" daudela (688,6 milioi, aurreko urtean baino 127 gutxiago, hau da, % 15,6 gutxiago) eta bigarrenetan, berriz, "Petrolioaren olio finduak" (309,2 milioi gehiago inportatu dira, eta % 8,2ko hazkundera izan dute). Partida horien atzetik datoz "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (130,8 milioi), "Produktu lau ijetziak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, baina xaflatuak edo estaliak > 599 mm" (106,4 milioi) eta "Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak" 104,4 milioi inportatuta.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 437,3 milioi euroko saldo positiboa izan du urteko lehenengo bi hilabeteetan, eta estaldura-tasa % 109,7koa izan da.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62